LAUDIO ikastola



# OHIKO BATZAR OROKORRERAKO TXOSTENA

2019ko ekaina

# AURKEZPENA

*Kaixo bazkide,*

*Datorren ekainaren 6an, osteguna, Laudio Ikastolako Guraso Kooperatibaren Urteko Batzar Orokorra ospatuko dugu. Beraz, Ikastolako bazkide guztiak gonbidatuta zaudete urteko batzar horretara.*

*Ikastolak zerbait bagara, auzolana, herrigintza, komunitatea gara... Eta komunitatea eraikitzeko bide horretan denon ekarpena ezinbestekoa dugu. Hortaz, gogoan izan bertan landuko ditugula zuen seme-alaben hezkuntzarako garrantzitsuak diren gai nagusiak. Horretarako, bertan jorratuko ditugun gaiak biltzen dituen txostena helarazten dizuegu, baita jorratuko dugun gai zerrenda ere.*

*Bilerak duen garrantziaz ohartu eta bertaratuko zaretelakoan agurtzen zaituztet.*

*Adeitasunez*

*Ixone Urkijo*
*Ikastolako lehendakaria*

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA ....... 2
2018 EKITALDIAREN EMAITZA KONTUA ....... 3
2018 EKITALDIAREN EGOERA BALANTZEA ....... 4
2019 EKITALDIRAKO AURREKONTUA ....... 6
EGOERA EKONOMIKOAREN HAUSNARKETA ....... 8

# 2018 EKITALDIAREN
# EMAITZA KONTUA

| | 2018 | 2017 |
|---|---|---|
| **A) ERAGIKETA JARRAITUAK** | | |
| **1. Negozio-zifraren zenbateko garbia** | **1.337.922** | **1.313.271** |
| a) Salmentak | 1.337.922 | 1.313.271 |
| **4. Hornikuntzak** | **(402.077)** | **(466.952)** |
| a) Salgaien kontsumoa | (69.840) | (104.927) |
| b) Lehengaien eta bestelako material kontsumigarrien kontsumoa | (181.344) | (186.937) |
| c) Beste enpresa batzuek egindako lanak | (150.903) | (175.088) |
| **5. Ustiapeneko bestelako sarrerak** | **3.262.121** | **3.280.812** |
| a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk | 82.972 | 107.343 |
| b) Ekitaldiko emaitzan sartutako ustiapeneko diru-laguntzak | 3.179.150 | 3.173.469 |
| **6. Pertsonal gastuak** | **(3.644.496)** | **(3.696.597)** |
| a) Soldatak, lansariak eta antzekoak | (2.864.324) | (2.886.073) |
| b) Karga sozialak | (780.172) | (810.524) |
| **7. Ustiapeneko bestelako gastuak** | **(257.919)** | **(221.748)** |
| a) Kanpoko zerbitzuak | (223.565) | (199.511) |
| b) Tributuak | (1.076) | (469) |
| c) Eragiketa-komertzialeko galerak, narriadurak eta hornidura-aldakuntzak | (5.473) | (1.003) |
| d) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak | (27.806) | (20.765) |
| **8. Ibilgetuaren amortizazioa** | **(263.460)** | **(251.762)** |
| **9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena** | **31.948** | **29.615** |
| **12. Heziketarako eta kooperatiba sustapenerako kontribuzioa** | **(2.398)** | **-** |
| **13. Bestelako emaitzak** | **10.877** | **74.590** |
| **A.1) USTIAPENEKO EMAITZA** | **72.517** | **61.229** |
| **14. Sarrera finantzarioak** | **344** | **255** |
| b) Balore negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak | 344 | 255 |
| b2) Hirugarren enpresetakoak | 344 | 255 |
| **15. Gastu finantzarioak** | **(27.604)** | **(18.407)** |
| b) Hirugarrenekiko zorrenak | (27.604) | (18.407) |
| **16. Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitzak** | **(4.040)** | **(18.543)** |
| a) Narriadura eta galerak | (4.040) | (18.543) |
| **A.2) EMAITZA FINANTZARIOA** | **(31.300)** | **(36.695)** |
| **A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA** | **41.217** | **24.534** |
| **19. Mozkinen gaineko zerga** | **-** | |
| **A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA** | **41.217** | **24.534** |
| **A.5) EKITALDIKO EMAITZA** | **41.217** | **24.534** |

# 2018 EKITALDIAREN
# EGOERA BALANTZEA

## AKTIBOA

| | euroak BALANTZEA 2018 | euroak BALANTZEA 2017 |
|---|---|---|
| **A. AKTIBO EZ KORRONTEA** | **4.747.827** | **4.711.551** |
| **I. Ibilgetu ukiezina** | - | **409** |
| 5. Aplikazio informatikoak | - | 409 |
| **II. Ibilgetu materiala** | **4.484.697** | **4.577.652** |
| 1. Lurrak eta eraikuntzak | 3.178.023 | 3.318.521 |
| 2. Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala | 1.306.674 | 1.259.131 |
| **IV. Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak** | **70.424** | **74.464** |
| 1. Ondare tresnak | 59.616 | 63.656 |
| 3. Zorra adierazten duten baloreak | 10.808 | 10.808 |
| **V. Epe luzeko finantza-inbertsioak** | **192.706** | **59.026** |
| 1. Ondare-tresnak | 1.550 | 17.898 |
| 2. Hirugarrenekiko hartzekoak | 190.556 | 40.528 |
| 5. Bestelako aktibo finantzarioak | 600 | 600 |
| **B. AKTIBO KORRONTEA** | **806.253** | **925.695** |
| **II. Izakinak** | **16.305** | **14.998** |
| 1. Merkataritzakoak | 6.998 | 9.795 |
| 2. Lehengaiak eta bestelako hornikuntzak | 9.307 | 5.203 |
| **III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak** | **183.126** | **148.320** |
| 1. Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateengatik | 3.856 | 14.064 |
| 6. Administrazio publikoekiko bestelako hartzekoak | 179.271 | 134.256 |
| **V. Epe laburreko inbertsio finantzarioak** | **274.145** | **274.145** |
| 5. Bestelako aktibo finantzarioak | 274.145 | 274.145 |
| **VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak** | **332.677** | **488.232** |
| 1. Diruzaintza | 332.677 | 488.232 |
| **AKTIBOA GUZTIRA** | **5.554.080** | **5.637.246** |

# ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

| | euroak BALANTZEA 2018 | euroak BALANTZEA 2017 |
|---|---|---|
| **A. ONDARE GARBIA** | **4.004.533** | **3.790.065** |
| **A.1 Funts propioak** | **1.443.205** | **1.345.182** |
| **I. Kapitala** | **78.316** | **58.183** |
| 1. Kapital eskrituratua | 78.316 | 58.183 |
| **II. Erreserbak** | **1.343.308** | **1.306.635** |
| 3. Estatutuetako erreserbak | 116.705 | 116.705 |
| 4. Beste erreserbak | 1.226.603 | 1.189.930 |
| **III. Aurreko ekitaldietako emaitzak** | **(19.636)** | **(44.170)** |
| 2. Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak | (19.636) | (44.170) |
| **V. Kooperatibaren soberakina (negatibo edo positiboa)** | **41.217** | **24.534** |
| **A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak** | **2.561.328** | **2.444.883** |
| **B. PASIBO EZ-KORRONTEA** | **1.059.887** | **1.174.785** |
| **I. Hezkuntza eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoko bestelako xedeetarako ekarpena (COFIP)** | **12.964** | **20.623** |
| **III. Epe luzeko hornidurak** | **244.864** | **258.788** |
| 1. Pertsonalaren epe luzeko lansarien obligazioak | 244.864 | 258.788 |
| **IV. Epe luzerako zorrrak** | **802.059** | **895.374** |
| 2. Kreditu erakundeekiko zorrak | 748.318 | 829.631 |
| 5. Epe luzeko bestelako partaidetzak | 53.741 | 65.743 |
| **C. PASIBO KORRONTEA** | **489.658** | **672.396** |
| **V. Epe laburreko zorrak** | **80.595** | **78.890** |
| 2. Kreditu erakundeekiko zorrak | 80.591 | 78.886 |
| 5. Epe laburreko bestelako partaidetzak | 4 | 4 |
| **VI. Taldeko enpresekiko, elkartuekiko eta bazkideekiko epe laburreko zorrak** | **6.778** | **-** |
| 1. Taldeko enpresekiko zorrak | 6.778 | - |
| **VII. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak** | **402.285** | **593.506** |
| 1. Hornitzaileak | 104.754 | 101.527 |
| 3. Hainbat hartzekodun | 53.271 | 80.897 |
| 4. Pertsonala | 24.727 | 190.542 |
| 5. Zerga korronteengatik pasiboak | - | 3.598 |
| 6. Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak | 219.533 | 216.942 |
| **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA** | **5.554.080** | **5.637.246** |

LAUDIO ikastola

# 2019 EKITALDIRAKO
# AURREKONTUA

## GASTUAK

| | euroak AURREKONTUA 2019 | euroak AURREKONTUA 2018 |
|---|---|---|
| **LANSARIAK** | **3.784.323** | **3.628.070** |
| Irakaslegoa | 2.215.625 | 2.127.935 |
| Administrazioa | 115.084 | 111.428 |
| Jantokia+garraioa | 153.592 | 170.901 |
| Mantentze-lanak-garbiketa | 120.590 | 107.704 |
| Ordezkapenak | 184.609 | 148.647 |
| Aurrejubilazioak-Liberatuak | 116.098 | 135.953 |
| Enpresaren kargurako G. Segurantza | 854.432 | 798.982 |
| Gastu Sozialak | 24.295 | 26.519 |
| **PRESTAKUNTZA** | **24.761** | **17.000** |
| **FUNTZIONAMENDUA** | **162.286** | **189.435** |
| **MANTENTZE-LANAK** | **169.502** | **148.540** |
| **JANTOKIA** | **128.870** | **127.600** |
| **KOMUNIKAZIOA** | **18.875** | **13.500** |
| **GARRAIOA** | **72.650** | **71.902** |
| **FINANTZ GASTUAK** | **16.274** | **17.245** |
| **IKASTOLAKO BEKAK** | **29.307** | **29.391** |
| **BESTELAKO GASTUAK / EKE** | **88.310** | **87.266** |
| **URTEKO AMORTIZAZIOA** | **269.956** | **274.145** |
| **GASTUAK GUZTIRA** | **4.765.115** | **4.604.093** |

# SARRERAK

| | euroak AURREKONTUA 2019 | euroak AURREKONTUA 2018 |
|---|---|---|
| **EUSKO JAURLARITZA** | **3.085.933** | **2.924.147** |
| Hezkuntz Kontzertuak | 2.747.569 | 2.639.254 |
| Inbertsioak | 32.023 | 8.532 |
| Proiektuak- 0-3 urte | 158.187 | 142.090 |
| Bestelako kontzeptuak | 148.155 | 134.271 |
| **LAUDIO UDALA** | **54.484** | **124.484** |
| **KUOTAK** | **1.258.083** | **1.272.840** |
| Ikastola | 549.932 | 511.332 |
| Jantokia | 374.510 | 438.937 |
| Garraioa | 34.276 | 34.775 |
| Bestelakoak | 10.530 | 6.500 |
| Aparteko kuota | 81.360 | 80.080 |
| Inbertsio kuota | 172.114 | 166.696 |
| GKE/Gelaz Kanpoko Ekintzak | 35.360 | 34.520 |
| **BESTELAKO SARRERAK** | **118.652** | **95.425** |
| **KAPITAL DIRULAGUNTZAK** | **127.074** | **127.074** |
| **ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK** | **54.715** | **41.891** |
| **SARRERAK GUZTIRA** | **4.698.941** | **4.589.261** |

| | |
|---|---|
| **2019 EKITALDIAN SORTUKO DIREN ERREKURTSOAK** | **(66.174)** |
| **2019 EKITALDIRAKO BANKU AMORTIZAZIOEN AURREIKUSPENA** | **80.437** |

# EGOERA EKONOMIKOAREN **HAUSNARKETA**

*Aurkeztutako balantze eta emaitza kontua Ikastolatik kanpoko ikuskaritza enpresa batek egindako auditoretzan jasota daude eta bazkide guztiek txosten osoa kontsulta dezakete Ikastolako idazkaritzan.*

*Urtean zehar aurrekontuetan jasotako jarraibideak aplikatzen ditugu, eta egunerokoan gerta daitezkeen gorabeheren arabera egokitzapenak bideratzen ditugu.*

*Hortaz, Ikastolaren egoera ekonomikoari buruzko hausnarketa 2018 ekitaldian jasotako gastu eta sarreren azterketatik abiatu behar dugu. Hauetan emandako desbideratzeak baliatuko ditugu izandako gorabeherak azaltzeko.*

## GASTUAK

*Gastuen atalean, orokorrean, aipatzekoa da aurreikusitako kopuruak abiapuntu hartuta oso desbideraketa txikia eman dela. Dena den, atalez atal aipagarrienak diren desbideraketak hauek dira:*

### SOLDATAK

*Ikastola osoko gastu guztien %79 pertsonal gastuei dagokio. Hauek dira ikastolako gastuen artean pisu gehien dutenak.*

*Ordezkapenen partidak aurreikusitakoa baino kostu handiagoa suposatu du (+60.000 euro).*




### BESTE GASTUAK

#### JANTOKIA

*Askora enpresarekin egindako hausnarketa eta azterketa aurrekontuan jaso gabe zegoen (+13.000 euro).*

#### KOMUNIKAZIOA

*Matrikula kanpainan indarra jarri da eta aurreikusi baino gehiago gastatu da (+3.200 euro).*

#### FUNTZIONAMENDUA

*Aurreikusitakoa baino gutxiago gastatu da (-41.000 euro).*

#### MANTENUA

*Aurreikusitakoa baino gehiago gastatu da (+6.500 euro).*

#### AMORTIZAZIOAK

*Auditoretzan agindutako doikuntzak direla eta 8.400 euro gutxiago izan da gastu partidaren zenbatekoa.*

*Atal batzuetako desbideraketa negatiboak beste batzuetako positiboekin konpentsatu izan dira 2018 ekitaldian.*

# SARRERAK

*Ikastolako sarrera guztien %29 kuotei dagokie eta %66 diru-laguntza publikoei.*




## DIRU-LAGUNTZAK

*Igoera eman da aurreikusitako zenbatekoekin konparatuz, gehien bat Eusko Jaurlaritzako hezkuntza itunetan igoera eman delako.*

## BESTE SARRERAK

*Aurrekontuarekiko diferentzia handienak beste elkarte eta erakunde batzuekin elkarlanean egiten diren salmenta kanpainetako zenbatekoek (Errigora eta bestelako ekimenek) sortzen dute, hauek ez direlako aurreikusten hasieratik. Edozein kasutan, sarrera hauek zenbateko berdineko gastua ere badute.*

*Ikastolen elkarteko liberatuengatik jasotzen den diru kopuruan ere igoera egon da, soldata igoerak egon direlako.*

## EMAITZA POSITIBOA

*Horrela, 2018 ekitaldiaren emaitza positiboa izan da, 41.216 euro. Kooperatiba garen neurrian, hezkuntza fondoaren zuzkidura egiteko derrigortasuna daukagu, honen zenbatekoa 2.398 eurokoa izan delarik.*

*Mailegu eta inbertsioei dagokienez 2018an ondorengoak jaso dira:*

| | |
|---|---|
| *MAILEGUEN AMORTIZAZIOAK* | *80.591,91* |
| *MAILEGUEN INTERESAK* | *16.697,71* |
| *INBERTSIOAK* | *50.709* |

# 2019KO AURREKONTUA

*2019 urterako aurrekontuan ez da beste ekitaldiekiko aldaketa nabarmenik proposatzen, gastu zein sarrera ataletan igoerak aurreikusten dira:*

## GASTUAK

- *2018an onartutako lan hitzarmen berrian adostutako soldata igoera.*
- *2018an Batxilergo 1. mailan egon zen ikasle kopuru handitzea, 2019an batxilergo 2. mailan egongo da; ondorioz, iazko lanpostu jardunen egokitzea mantenduko da.*
- *Komunikazio arloan, bereziki matrikula kanpainan, egin beharreko lanetarako partida handiagoa aurreikusi da.*
- *Mantenu partidetan konponketak egiteko partida handitu da.*
- *Amortizazioetan, kontuen auditoretzan doikuntza batzuk agindu dituzte eta horrek zenbatekoa murriztu du.*

## SARRERAK

- *Kuotetan jaitsiera aurre ikusten da, 2018an baino 10-15 ikasle gutxiago izango ditugulako.*
- *Eusko Jaurlaritzako hezkuntza itunetan igoera emango da, lan hitzarmen berriaren ondorioz.*
- *Ikastolen elkarteko liberatuen zenbatekoan ere igoera emango da, soldaten zenbatekoen doikuntzagatik.*
- *Beste sarrerak eta GKE sarrerak partiden zenbatekoak 2018 zenbateko errealetara doitu dira*